

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Zergak eta tasak biltzea borondatezko epean

Natividad López de Munain Alzola, Burgeluko Udaleko alkate-lehendakaria,

Jakinarazten dut: irailaren 15etik aurrera ordaindu ahal izango direla borondatezko epean ondoko zerga hauen 2020eko ordainagiriak:

- Hiri eta landa izaerako eta ezaugarri bereziko ondasun higiezin gaineko zerga.
- Zaborrak eta hiri hondakin solidoak biltzeagatik ordaindu beharreko tasa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

Ordaintzeko aldiak:

A) Borondatezko aldia: 2020ko irailaren 15etik azaroaren 15era.

B) Premiamendu aldia: azaroaren 16tik aurrera; egun horretatik aurrera, administrazio premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Dirubilketako Erregelamendu Orokorrek xedatutakoaren arabera.

Ordaintzeko tokiak:

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko ekitaldietatik helbideratuta daukatenek ez dute beste ezer egin beharrik, baldin eta adierazi zuten banku kontu helbideratuak indarrean jarraitzen badu. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideraturik ez daukatenek borondatezko epean (2020ko irailaren 15etik azaroaren 15era) ordaindu beharko dute, Kutxabankek Dulantzín duen sukurtsalean (Dulantzi kalea, 11), bulegoko orduetan.

Zergadun guztiei jakinarazten zaie Burgeluko Udalaren bulegoetan izapidetu beharko direla altak eta banku helbideratze guztiak bai eta helbide aldaketa guztiak ere jakinarazpenetarako.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Burgelu, 2020ko abuztuaren 18a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA